

Nekazaritza Ipar Euskal Herrian

Agustin Errotabehere

I. BASERRIEN ERAIKIDURAK

1. — Baserrien eremua eta kopurua

Hona hemen 1970eko zifra ofizialak:

	Itsas hegia	Aturri behera	Euskal Ezponda	Mendia	Orotara
Zenbat ba- serri	989	854	5.236	1.870	8.949
Zenbat lur landu	7.265 Ha.	11.910 Ha.	75.590 Ha.	22.059 Ha.	116.824 Ha.
Baserri ba- koitzeko	7,40 Ha.	13,90 Ha.	14,60 Ha.	12,22 Ha.	13,20 Ha.

Orotara 1970ean baziren ia 9.000 baserri eta bana bertze bakoitzak 13 Ha. pasa lur landu bazituen. Bainan lur ahamen bat lantzen duten etxe guztiak kontatuak dira hemen eta, daki-gunez, Iparraldean, langile eta enplegatu askok beren irabazi xuhurra gotortzeko, ardura lur kantoin bat lantzen du.

Badakigu ere, iturri beretik, 1970ean 1.100 baserrietako nagusiek beren bizia baserrietik kanpo egiten zutela.

Beraz, Iparraldean baziren 1970ean 7.500-8.000 baserri eta geroztik, egunetik egunera kopuru hori ahultzen ari da.

Ikus dezagun orai xehekiago zenbat baserri dauden eremu arau eta zenbat lur lantzen duten:

	EREMU NEURRIA						
	< 2 Ha.	2-5 Ha.	5-10 Ha.	10-20 Ha.	20-50 Ha.	50-100 Ha.	> 100 Ha.
Itsas hegia	150	347	293	144	46	8	1
Aturri behera	77	137	183	286	155	17	3
Ezponda	309	654	1.152	1.889	1.155	71	6
Mendia	184	211	510	701	254	9	1
Orotara n.º abs.	720	1.349	2.138	3.020	1.610	105	11
Ehuneko (%)	8	15	23,9	33,7	18	1,2	0,1
Orotara Ha.	758	4.665	15.786	43.203	44.407	6.469	1.536
Ehuneko (%) zenbat lur landu	0,6	4	13,5	37	38	5,5	1,3

Hemen agertzen den bezala, Iparraldeko baserrien eremua ahula dela ez da dudarik:

- horietarik %47k 10 Ha. lur landuz petik du eta lur landu orotarik %18 erabiltzen du.
- %80k 20 Ha. lur landuz petik du.

«Administration» delakoaren arabera, familia baten biziarazteko 15-20 bat Ha. lur landu, behar denez, ikusten dugu hein horretara baserri guti heltzen dela.

Mendietako baserriek dute eremurik gutien, baina mendiaz baliatzen dira abercen (ardi, behi, zaldi) hazteko uda-larrazketan.


Eremu ahuleko nekazaritza baldin bada Iparraldean, badira ere eremu gotorra daukatenak bereziki zelaietan (Aturri eta Errobi behera, Hazparne, Donapauze, Maule...).

2. — Lurraren jabetasuna

Lur gehienak jabeek berek dituzte erabiltzen. Baina badira ere lurra alokatzen duten erabiltzaileak. Alokaera edo alkiler hori bi moldetara egiten da.

- Bat, alokacra garbia (fermage): erabiltzaileak bederatzi urtetarako alokatzen ditu, urtero alokairu bat jabeari ordainduz.

IPARRALDEA



- Bertzea, etxatiergoa (metayage): erabiltzaileak bere emaitzaren parte batez (erdia) ordaintzen du luraren erabiltzea.

Molde hori, molde zaharkitu bat da eta nekazariak borroka bitartez erdietsi dute alokaera garbira aldatzea, etxatierrak galdeginez gero.

1970ean, baserrietarik:

- %54tan erabiltzailea luraren jabea zen.
- %13tan erabiltzailea alokatzailea zen.
- %4tan erabiltzailea etxatierra zen.
- %29tan erabiltzailea jabe eta alokatzailea zen.

1976an 24.000 hektarea baziren alokaturik:

- 1.200 baserrik alokatzaile edo etxatier huts bezala alokatuak;
- 3.200 baserrik jabe diren lurren emendatzeko alokatuak.

3. — Baserrietako kapitala

Nekazaritza gaur egun industria pisu bati konparatzen ahal da ezen bertze ariketa (aktibitate) gehienek baino kapital gehiago behar baitu langile bakoitzak.

Gestioa egiten duten baserri batzuei behatuta, ikusten dugu 1977an baserri batetan zenbat kapital sartu behar den:

Hona hemen, adibidez, 20 bat hektareako baserri batek zer kapital behar duen, lurraren erostea kontatu gabe (gehienetan, gainera, lur-eroste hori etxeko haurrideei egin behar da):

Aterbe eta barruki	92.500 F
Tresneria	53.800 F
Abereak	138.300 F
Onkailu, bazka eta bertze ...	23.200 F
<i>Orotara</i>	307.800 F
heldu baita 15-16.000 F/Ha.	

Lurraren erostea kontatuz (hektareak 20.000 F balio du) 700.000 liberatara heltzen gara, esan nahi baita 500.000 F langile bakoitzeko.

Horrek hiru ondorio dakartza:

1) Gazteak ez dira errazki plantatzen nekazaritzan eta aberats-ofizio bat bilakatua da. Sortze onekoa izan behar da edo bertzela zorrak egiteko ez beldurrik izan. Nolanahi bankuek ez dute kapitalaren parte bat baizik prestatzen.

2) Nekazariak egunetik egunera zor gehiagotan sartuak dira eta gero eta ordaintze haundiagoa daukate egiteko urte oroz.

Hona hemen aitzinean aipaturiko baserri gestioa egiten dutenek zer ordaintzen duten hori egiteko.

1976 22.700 F

1977 24.900 F, erran nahi baita %10 gehiago.

Hori, nahi ala ez, gaitz beharrezkoa da zeren beren bizia irabazteko urtetik urtera emaitza gehiago atera behar dute nekazariak —emaitza horien prezioa emekiago altxatzen da erospenera baino— eta horretarako abere gehiago, onkailu eta bazka gehiago, eremu gehiago... behar dute.

Halaber, tresnak ere erosi behar dituzte, baserrietako langileria gutituz doa eta...

Bainan gaur, bereziki gazteak gero eta gehiago elgarretaritzen dira beren tresna garestienek erosteko elkarte batzu eginez (CUMA). Elgarrekin lan egiteko ohiturak hartzen dituzte eta halaber elgertasuna sortzen da gazte horien artean.

3) Baserriko despendioak emendatuz doaz bai diruaren interesaren aldetik, bai mekanikaren kostu aldetik. Hauek, 1976an, kostu orotarik % 15era heltzen ziren. Adibide bat emateko

Hektareako	560 F
Baserriko	11.200 F

4. — Eraikiduraren problemak

Eraikidurei begiratu ezan daiteke Iparraldeko nekazaritza ahula dagoela, eta egoera hori ez da heldu diren urteetan anitzez aldatuko. Etorkizunari begiratu, baserrien arteko konpetentzia eta irabazi ahulak ikusiz, «handicap» haundi bat dugu. Iparraldeko nekazaritzak gogorki beharko du borrokatu bere izatearen defendatzeko.

Berehala bi problemari erantzun behar dio nekazaritzak: lurrenari eta kapitalarenari; biak elgarri josiak, noski.

a) *Lurra.*

Nekazariarentzat lurra laneko tresna baitezpadako bat da, hartaz jabetzea zorigaitz beharrezko bat: lurra erosiz, zorretan sartzea, bere izerdiz ordaintzeko, gero aberats hiltzeko. Estatuak hartuko dio orduan parte on bat. Generazio aldatzea guztiz nekazaritzaren odolustutzea da.

Azken lau urte hauetan, ia 3.700 Ha. saldu dira, eremu osoaren %2-3.

Lur hori prezio beldurgarri batetan saltzen da: gutienez 20.000 F hektareako, askotan gehiago. Nekazari ez diren dirudunak, askotan kanpokoak, erosle dira urtetik urtera zer balio hartzen duen ikusiz: diru irabazteko iturri ederra. Nekazariak, hein hori behar ordaindu!

Legearen eta SAFERaren bidez (Estatuak muntatu organismo bat) nekazariak ez daukate merkatu horren kontrolatzerik: ez norik erosten duen eta ez zer preziotan. Orduan borrokaren bitartez (Iholdi, Sara, Irisarri... etabar) beren eskubideak errespetarazten dituzte nekazariak. Ondoko urteek, lur problema dela eta, borroka asko ikusiko dute.

b) *Kapitala.*

Tresnatzeak eta lurrerosteak baserriaren zorrak emendatuz edo gehituz, Bankuekiko dependentzia batetan ezartzen dute nekazaria. Eta banku hori (Crédit Agricole) sortzez nekazariena, nola nekazaritza uruntzen ari den, egun batez iturria mehetu edo agortu egingo da. Jadanik baserrien Kapitalaren parte gotor batetaz jabetu da banku hori.

II. JENDETZA

1. — Baserrietako jendetza

Nekazaritza da Iparraldeko ariketarik (aktibitate) haundiena eta kasik bakarra industriarik ez denez; eta jendetza gehiena baserrietik bizi da.

Ikus dezakegu hemen zenbat jende bizi zen baserrietan 1970ean.

	Itsas hegia	Aturri behera	Ezponda	Mendia	Orotara
Baserrietan bizi zen jendetza guztia	4.425	3.898	24.264	8.773	41.360
Baserrian lanik egiten ez dutenak	1.957	1.546	9.985	3.301	16.789
Denbora betean lan egiten dutenak	688	583	4.728	1.851	7.851
Noiztenka lan egiten dutenak	1.780	1.769	9.551	3.620	16.720
Mutilak (morroiak)	262	68	356	145	831

— Baserri bakoitzean 4-5 lagun bizi ziren.

— Noiztenka lan egiten dutenak, beti ari balira bezala kon-
tatuz heltzen gara nonbait hor 13.500 langile aktibora.
Baserri bakoitzean bagenuen, beraz, 1,5 langile aktibo.

2. — Baserrietako nagusien adina

Ikus dezagun orai zer adin zuten —beti 1970ean— nekaza-
ri nagusiek. Eman dezagun adin arau zenbat nekazari nagusi
dauden.

	< 35 urte	35-50	50-60	60-65	> 65
Itsas hegia	32	395	143	146	273
Aturri behera	84	398	130	110	136
Ezponda	483	2.552	704	685	812
Mendia	175	881	289	206	325
Orotara	774	4.226	1.286	1.147	1.546
Ehuneko	8,6	47,2	14	12,8	17,3

Hemen ikusten dugu nola:

- Baserriko nagusietarik %17k, 65 urte baino gehiago dituztela, erran nahi baita, erretreta edo erretiroa hartzeko adina pasaturik daukatela eta 35 urtez petik diren nagusi gazteek doblea badirela (anitzetan donadoak dira eta segidarik gabe).
- Bana-bertze, 50 bat urte ditu baserriko nagusiak. Beraz, zaharrak dira baserrien buru, anitzetan eskolarik gabe, ez dira molde eta teknika berriei irekiak eta inbertitzeko herabe.

Azken urte hauetan, gobernuak ahalegin berezi bat egin du zaharrak baserrien burutik baztertzeko, gazteak planta dai-tezen. Eta aldaketa egiten ari da emeki-emeki: 120-150 bat gazte plantatzen dira urte oroz baserrien buru eta ber denbo-ran dinamizatzen ari da Iparraldeko nekazaritza eta hemendik doa nekazaritzaren eta Iparraldearen geroa.

3. — Baserrien geroa

Baserri hustutzeak bertze herrialdeetan izan duen garrantzia Iparraldean ez badu izan oraino, bere lana darama eta herriaren oinarria emeki emeki bosatu egiten du bereziki bertze lan mol-derik ez baita.

1955etik 1970era baserrietarik %21 hertsu da eta azken urte hauetan galtze hori gero eta gehiago ari da gertatzen Departa-mendu mailan:

- 1962tik 1968ra %3,8 baserriko jende hustu da urte oroz.
- 1968tik 1976era %4,4 baserriko jende hustu da urte oroz.

Baserriak, aldiz:

- 1955etik 1970era %1,86 dira urte oroz hertsu diren ba-serriak.

— 1970etik 1977ra %2,1 dira urte oroz hertsu diren baserriak.

Lehendabizirik hustu diren herrialdeak zelaiak dira (Donapaleu, Hazparne, Maule, Errobi eta Aturri behera). Azken urte hauetan, aldiz, mendiek galdu dute gehienik. Adibidez, Baigorriko herrialdeak azken zazpi urte hauetan bere jendetzaren %15 galdu du.

Gehiago dena, gazteak dira herritik joaten eta zaharrak gelditzen, ezkontzak eta sortzeak gutitzen ($\frac{0}{100}$ 9 baino gutiago urtero). Denbora berean, buruhiltze eta alkoholismoa gizarte horren hiltzearen froga edo ezaugarri dira.

Gaur Zuberora, Garazi eta Baigorriko herrialdeak horretaratuak dira eta ez ditu turismoak berriz piztuko.


Ikus dezagun hemen azken zazpi urte hauetan zer pasatu den guti gora behera jendetzaren aldetik.

	1970	1977	Galtzea		
			%	Orotara	Akitanian
Zenbat baserri	8.950	7.750	—%13,5	1.200	—%20
Baserrietako jendetza osoa	41.360	35.150	—%15	6.200	—%20
Baserrietako fami- liako (Aktib.) A	12.700	9.750	—%22	3.000	—%27
Morroiak B	830	420	—%52	400	—%34
Baserriko lan- gileak (A + B)	13.500	10.200		3.300	

Beraz, azken zazpi urte hauetan Iparraldeak galdu ditu:

- 6.200 lagun baserrietik joanak.
- 1.200 bat baserri segidarik gabe hertsirik.
- 3.400 bat lanpostu, industria batek ere ez baititu ordaindu eta langabezia ja haundi dagoenean, hola segituz, Iparralde barnearen geroa problematikoa bezala agertzen da.

Baserri-hustutze hori ez dadin gehiegi egin, 1990 inguruan baserrien kopuruaren egonkortasuna (estabilidad) erdiestea hartu behar litzateke helburu bezala. Nekazari baten aktibitatearen erdia 45 urte hartuz nekazari kopuru bera behar litzateke 45etik 65 urtetara eta 45 urtez behetik.



Hots, 140 baserriko nagusi urtero, eta horietatik 50, 35 urte baino gazteagoak.

...eta gaur 120-150 bat gazte plantatzen dira baserrietan. Hein horrek bederen behar luke segitu...

III. PRODUKZIOA

Baserrien eremu hertsia, klima epel eta bustia belar eta bazkentangat faboragarria, ohiturak, hainbeste arrazoi dira Iparraldeko nekazaritza hazkuntzari emana dela esplikatzeko dutenak. Bihiak egin ohi dira, bereziki artoa, zelaietan eta bere denboran, horko nekazariei nahiko irabazia uzten zien, baina orain gauzak aldatu egin dira...

Ikus dezagun hemen zer diren hazkuntza- eta landare-produkzioak ¹:

	PRODUKZIOAREN BALIOA FRANKOTAN			
	1969	%	1976	%
Landare produkzioa	41.478 F	19,6	69.800	16,8
Haragi produkzioa	136.382 F	64,3	258.300	62,0
Esne produkzioa	34.099 F	16,1	88.650	21,2
Orotara	211.959 F	100	416.750	100

Produkzio osoaren %80 hazkuntzatik heldu da eta joera edo tendentzia hori indartuz doa.

Hona 1970ean lurrak zertarako baliatzen ziren²:

LURRAK HEKTARETAN					
LUR IRAULIAK					
	Lur landuak	Lur irauli osoak	bihiak	bazkak	Beti pentze
Orotara	116.824	34.928	21.781	10.988	79.624
Ehuneko (%)	100	29,9	18,6	9,4	68,1

Hemen ere agertzen da lur landuetarik ia %80 bazka egiteko baliatzen dela. Ohar gaitzen beti pentze direla lur gehienak; batzuetan leku patartsu edo aldapatsuetan ezinbertzean, baina esan behar da nekazari anitzek ez dakitela belazain hazten^{*} eta produkzio gutiko pentze zaharrak atxikitzen dituztela menderen mende, irauli eta berria erein beharrean...

1. — Hazkuntza

1) Behiak

1970ean zenbat behi-ama ziren ezarri dugu hemen.

ZENBAT BEHI BURU		
	Behi-Ama oro	Esne-behiak
Itsas Hegian	4.280	3.630
Aturri Behera	5.271	1.301
Ezponda	34.722	11.941
Mendia	8.959	1.247
Orotara	53.232	18.119
Ehuneko (%)	100	34

Haragitarako behi gehiago bazen esnetarako baino. Geroztik behi-tropa osoa emendatzen ari da eta espezializazio bat agertzen ari da bai haragitarako, bai esnetarako.

^{*} belazain: belar zaina — belar landare — belazain haztea = «cultiver l'herbe».

	BEHI-AMA BURUAK		
	1969	1976	Gehitzea
Haragitarako behi-amak	35.100	40.000	4.900
Esnetarako behi-amak	18.100	20.500	2.400
Orotara	53.200	60.500	7.300
Ehuneko (%) esnetarakoak	34	34	

a) *Haragitarakoak.*

Aspaldiko denboretan egina den produkzioa da eta lekuko behi arraza —behi gorriak edo «Blonde d'Aquitaine»— erabiltzen dute askok.

- Horiatarik badira 25.000 inguru, esan nahi baita arraza horren laurdena Iparraldean dagoela...
- Gainerakoak arraza guztietakoak dira eta gehienetan guti espezializatuak.

Baserri horietan ahatxeak (edo txahalak) haragitarako hazten dira eta saldu ohi dira edo 3 hilabetetan esnean bakarrik eginik edo 6 hilabetetan bazka zerbait izanik. Eta zer bilakatzen dira?

- % 30 baserrietan gelditzen dira, hazkuntzako behi zaharren ordain bezala edo behi gisa saltzeko.
- % 30 hemengo harakinek crosten dute ahatxeak haragia saltzeko, ez hemen bakarrik, bai eta Frantzia behean ere.
- % 40 ederrenak eta arduenik ordotzak Italiarako eroiak dira. Han gero azkar bazkatzen dituzte haragi gazte egiteko.

Haragi-produkzioaren parte haundi bat egiten du behi zaharrek eta ez da gaur egun haragi gazte egiten duen baserririk edo biziki guti. Eta horretan ari diren baserriak baserri txikiak dira askotan, espezializaziorik gabeak, bertze produkzioak badiutuztenak (edo ardiak edo bihiak).

Produkzio horren irabazia, urrunago ikusiko dugun bezala, oso ahula da, batez ere moda zaharrean egina delakotz. Baina, halaber, lan eta inbertsio guti eskatzen dugu. Aitortu beharra da haragia azken urte hauetan gaizki ordaindua dela.

Behi gorrien arraza horren hautapena ez zen azken urte artio egina. Eta egin eta gero agertzen da posibilitate asko dauz-

kala haragitako eta orain mundu alde guztietara galdegina da eta iturri bat bada hor produkzio horren irabazia gehitzeko.

Bestalde, Iparraldeak saltzen ditu arto-bihia alde batetik eta ahatxeak bestaldetik. Badirudi arto hori haragi egiteko baliatu behar litzatekeela. Baina, merkatuaren legea okerra da...

b) *Esnetarakoak.*

Badira gaur 23.000 behi esnedun, gehienak FFPN (txuri eta beltzak) arrazakoak eta horien kopurua urtetik urtera altxatzen da.

Esnetara doazen baserriak gero eta gehiago espezializatzen dira, barruki berriak eginez, erasteko edo deizteko makina ezarritik, behi esnetsuak erosiz, bai Frantzia iparrean, Bordeleko inguruan, eta bai beste erresumetan (Alemania, Holanda).

Emaitza hori egiten da bereziki Aturri eta Errobi behean (Hazparne, Senpere, Donapaleu), Garaziko inguruetan eta nekazari gazte asko horretan ari dira.

Produkzio horrek:

- anitz kapitalen beharra du, ala barruki, ala deiztegi edo deizteko makina, ala behiak berak, eta ardura zor haundietan dira horretan ari diren baserriak.
- anitz lan ere eskatzen du, ez lan dorpea baina igande, astelehen ala festaburu, urte guztian egunero, egin behar dena eta nekazaria lotuta daukana.
- Baina irabazi haundienetarik dakar. Beraz, eremu guti duten baserrietan ez da harrigarri produkzio horretara jotzea.

1976an Iparraldeko baserriek 480 mila hektolitro esne saldu dute, kontatu gabe, noski, ahatxek edana, gazna eginak edo nork berak hirian saldua...

Behi baten emaitza 2.700-3.000 litrokoa izan ohi da.

Produkzio osoak 700 mila hektolitro inguruan dituzke eta urte oroz goiti ari da: urte batetik bertzera + % 15.

Saltzen den esne^a lau erostunengana doa. Hauek dira:

- St. Martin: % 20. Angeluko industrial txiki bat. Esne eta esnekiak (yogourt, etabar) saltzen ditu itsas hegian.
- Villecomtal: Angelun dauka fabrika baina % 34 «Gervais-Danone» trust haundiarena da.

- ULPAC: % 39. Hau Tolosako kooperatiba haundi bat da.
- Sica-Esnea: % 7. Hemengo kooperatiba gisa bat da. Esnea saltzen du edo gazna egiten ardi-esnearekin nahasian.

2) Ardiak

266-277.000 ardi-ama buru badira, gehienak esnetarakoak eta 110.000 antxu. Ardi buru beltzak edo buru gorriak (Bizkainoak eta Probintzianoak). Artaldeak urtetik urtera % 3 emendatzen da.

Mendian (Zubero, Garazi, Baigorri) bai eta ere Iholdi, Hazparne, Maule, Donapaleu inguruetan aurkitzen dira artaldeak.

Artzain-mota berezi bat bada: lur gabekoa. Beren artaldearen jabe, baina lurrik ez dute; uda-larrazkenetan mendietan dituzte beren artaldeak eta neguan bazkak erosten dituzte, garesti pagaturik. Asko menditarrak dira. Etxean anaia edo arreba asko izanik eta lanik ez bertzean hola plantatuak. Gehienetan donado dira, adinean aitzinatuak. Gazte gutik hautatzen du holako bizimoldea.

Badira 220 bat artzain lur gabe eta 36.000 ardi artatzen dituzte.

12 miloi bat litro esne saltzen da orotara.

7 miloi Roquefort esnategietara izen bereko gazna egiteko; Roquefort-eko harpetan ontarazten dute beren molde bereziaz.

5 miloi salduak dira lekuko gazna egiteko:

Roquefort: société des Caves ...	1,8 miloi
Chaumes esnategia	1,1 miloi
Roquefort: Pyrenéefrom	0,8 miloi
SMIA Ardigazna	0,6 miloi

eta beste zenbait.

Lekuko gazna egiteari gero eta gehiago lotzen dira esnategiak eta gaur egunean «Roquefort» sozietateak berak egiten du gehiena. Baina artzainak beraiek ari dira orain kooperatiba txiki batzu egiten (Irisarrin - Bankan - SMIA Ardigazna - Sica Esnea) eta horretaz beste artzainek berek ere gazna egiten dute: 170 tona gazna saldu da 1977an. Baina artzainak gazna horren egitea berentzako atxikitzeke elgarretaratzen ez badira, Sozietate haundi horiek egiten dute.

Hala ere, gazna egiteak ongi ordaintzen du (litroko 5 franko) ardi esnea, bestela esnategietara saldatuko esnea 3,20 franko ordaindua dela ikusiz.

Ardi bakoitzaren produkzioa 50-60 litro inguruan neurtu liteke eta artalde hoberenetan, erran nahi baita esne kontrola egiten denetan, ia 100 pinta (litro) esne ardi bakoitzeko heltzen da. Ikus daiteke, artaldea hobeki moldatuz, bazkatuz, hautapen bat eginez, anitzez esne gehiago ateratzeko molderik badagoela.

Eta bide horretarik badoaz artzainak: berrikitan 45 artzainek muntatu dute koperatiba bat intseminazio artifiziala egiteko, arkaltzea kontrolotuz hautapen serio baten egiteko. Bazkatzearen aldetik ere belarra kontserbatzeko molde berri batzuei buruz ari dira (belar entsilatua). Arditegiak berritzen ari dira eta 1978an baziren 115 deizteko makina.

Esneaz bestalde saltzen dira 200.000 bildots, 11-15 kilo-koak. Baina bildots gehienak denbora berean sortzen baitira, bildotsen prezioa urtarril-otsailetan arras behehitzen da. Hor ere zerbait baliteke egiteko, artzainen irabazia sostengatzeko.

Produkzio honen irabazia, bertzei alderatuz, hobeagoa izanik ere, nekazariak egindako ikerketa batek erakusten du artzainaren lana legeak ordaintze gutieneko (SMIC) ezartzen duen prezioan ordainduz, litro esneak 5,20 F. inguruan behar lukeela ordaindua eta gaur egun 3,25 inguruan ordaindua dela.

3) Zerriak

	1970	1976
Zerramak	8.900	15.000

Ikusten dugun bezala 1970etik hona zerramen kopurua kasik doblatu egin da, baina azken urte honetan ezin daiteke anitzez emendatu edo gehitu, zeren eta zerrien prezioa arras beheratu da eta horren hazkuntza egiten zuten baserriak gaizki dabilta.

Produkzio hori saltzeari begira elgarretaratzen diren nekazari-talde batzuetan egiten da gehienaz (groupement de producteurs). Elkarte horiek kontrolatzen zituzten zerrien produkzio-tik % 60.

2. — Landare produkzioa

Hona landare produkzioak zer lur betetzen duen:

	1970	1976
Artoa	18.400 Ha.	16.400 Ha.
Ogia	3.500 Ha.	1.700 Ha.
Garagarra	760 Ha.	1.600 Ha.
Besterik	—	600 Ha.
Orotara	22.600 Ha.	20.300 Ha.
Ehuneko (%)	20	17

Landare produkzioarako erabiliak diren lurren eremua gutitzen ari da, bereziki ogi eta artoarenak: 6 Ha.tik bat baizik ez da, beraz landare produkzioarentzat. Gutiago seguruenik zeren arto-landa askok abereak behar dituzte bazkatu.

Zergatik? Lehen, produkzio horiek, bereziki artoak, irabazi bizkorra uzten zuten baina orain ez, eta eremu haundiak behar dira bizia ateratzeko.

Arto-produkzioaren parte bat ez da lekuan berean baliatzen eta beste herrialde edo erresumetara saltzen dugu.

Landare-produkzio berezi batzu gero eta gehiago egiten dira, hara nola:

Arto hazitakoa	1.700 Ha. (1976an)
Tabakoa	100 bat Ha.
Mahastiak	40 - 50 Ha.

Zeren lan haundia emanik ere produkzio horiek irabazi haundia uzten dute eta baserri eremu txikiari dagozkionak dira.

IV. IRABAZIA

Nekazari baten irabazia jakitea ez da erraza. Ongi gorderik dauzka bere berri eta xehetasunak bipiltzearen beldur balitz bezala. Gainera, biziki baserri guti dira kontuak egiten dituztenak. Zorigaitzez, zeren frantses ministro batek zioen bezala «Madarikatua, nekazariak kontatzen ikasi zuten eguna».

Egia erran, nekazariak begiak ireki balitzate eta ohar, ikus lezakete zer irabaz apala daukaten lanaren arabera eta hura hondarra bihurtzen zaiela, prezioen goratze garrarekin...

Irabazi hori arras desberdina dela dudarik ez. Nola liteke bestela eremuak eta emaitzak ere hala izanik. Bi bide hartuko ditugu irabazi horren neurritik hurbiltzeko.

Alde batetik, ikusiko dugu gestioa egiten duten baserriek, gehienetan gotor eta hoberenak, zenbat ateratzen duten. Bestaldetik, eginen ditugu Iparraldeko nekazaritzaren kontuak, gaingiroki ikusiz, baserri bakoitzarentzat zenbat irabazi gelditzen den.

Erran behar da guk aipatuko dugun irabazia zera dela, alegia, produkzioaren balioari gastu osoak kenduta gelditzen dena. Irabazi horrekin nekazariak behar ditu bere lanaz bestalde, inbertipenak, eta baserrian daukan bere kapitalaren interesa ordaindu.

1. — Gestioa egiten duten baserrien kontuak

Bi baserri-andanaren irabaziaz ikusiko ditugu: mendialde eta zelaietakoak alde batetik; mendikoak, bestaldetik.

a) Zelai-Mendialdeko baserrien irabaziaz. (Itsas hegi, Donapaleu, Hazparne, Iholdi, Bidaxune).

Baserri bakoitzeko	1976		1977	
	Orotara	/Ha.	Orotara	/Ha.
Produkzioaren balioa	189.865 F	6.250 F	202.529 F	6.377 F
Gastuak	137.500 F	4.523 F	155.914 F	4.934 F
Irabazia	52.365 F	1.727 F	45.615 F	1.443 F

Hori ikusiz, bi ondorio ateratzen ahal ditugu:

1. — Irabazi ahulak direla baserrietan. Andana honetako baserriek badute 30 bat Ha. eta hoberenak dira, hala ere irabazi gutienara edo minimora (SMIC) ez dira heltzen edo doi, ikusiz baserri bakoitzeko bi langile badirela. Eta hauek ez badute hein hori irabazten zer erran liteke bestetaz?

2. — Irabazi hori azken urte hauetan ez da emendatzen baina zorigaitzez beheiti ari da, biziaren kostua bana-bertze %10 goiti joanik ere urte guztiz.

b) Mendiko baserriak: 1977ko zifrak.

	< 10 Ha.		10-15 Ha.		15-20 Ha.		> 20 Ha.	
	Orotara	Ha.	Orotara	Ha.	Orotara	Ha.	Orotara	Ha.
Emaitzen balioa	41.998 F	5.562 F	53.594 F	4.524 F	76.373 F	4.421 F	84.293 F	2.975 F
Gastuak	24.603 F	3.259 F	32.104 F	2.720 F	36.532 F	2.111 F	47.202 F	1.666 F
Irabazia	17.394 F	2.313 F	21.430 F	1.804 F	39.838 F	2.306 F	37.091 F	1.309 F
1976ko irabazia	15.327 F	—	21.991 F	—	30.222 F	—	19.858 F	—
Zenbait langile aktibo	1,4		1,8		1,8		2,5	
Langile bakoitzeko	12.424 F		11.905 F		22.132 F		14.836 F	

Baserrien irabazia ahula bada, mendiko baserrien irabazia are gehiago, hemen agertzen den bezala. Baserri horietan nekazariak ez du irabazi gutienezkoa ere irabazten. Hala ere, gobernuak azken urte hauetan ematen dion laguntza ere kontatu da eta kasik irabazi horren erdia da.

Doi-doi bizitzekoa ateratzen dute, beraz, eta, badirelarik, zorren ordaintzea kezkarri zaie.

Modu horretan zer izanen ote da bihar? Gure mendiek azkenekotz husturik gelditu behar ote dute?

2. — Iparraldeko nekazaritza osoaren hurbiltze bat (1.000 Frankoz) ³

	1969		1976	
	Produkzioaren balioa	%	Produkzioaren balioa	%
Bihi-produkzioak	22.978	10,8	47.800	11,5
Beste landare-produkzioak (mahasti, tabako, barazki)	18.500	8,8	22.000	5,3
<i>Landare-produkzioak</i>	41.478	19,6	69.800	16,8
Behi-haragia	62.852	29,6	122.100	29,3
Ardi-haragia	24.390	11,5	46.000	11
Zerri-haragia	31.444	14,8	59.100	14,2
Oilo, lapin edo koneju, ahate...	17.746	8,4	31.100	7,5
<i>Haragi-produkzioa</i>	136.382	64,3	258.300	62
Behi-esnea	19.305	9,1	48.550	11,6
Ardi-esne eta ile	14.794	7	40.100	9,6
<i>Esne-produkzioa</i>	34.099	16,1	88.650	21,2
PRODUKZIO OSOA	211.959	100	416.750	100
<i>Erospenak</i>				
(onkailu, bazka)	63.581	30	179.000	42
	148.378	70	237.500	57
<i>Beste gastuak</i> (segurua, alokairuak)	17.000	8	47.000	11,3
BASERRIEN IRABAZIA	131.387	62	219.250	52,6
Baserri bakoitzeko	14.600		27.400	
Langile aktibo bakoitzeko	9.700		20.500	
Langile aktibo bakoitze- ko, Frantzia mailan	15.000		34.400	

Irabaziaren hurbiltze honek aitzinean ikusitako neurriak baieztatzen ditu. Baina hemen ikus dezakegu ere produkzio osoak zazpi urtez, nekazarien lana, indarren bitartez, bere balioa doblatu duela eta bereziki abere-produkzioak.

Denbora berean ikusten dugu gastuek zer jautzia egiten duten. Oro kontatuz gastuek produkzio osoaren %38 egiten zuten 1969an, hala hala 1976an, %54 egiten dute. Hemen da irabazi xuhur horren esplikazioa.

Alde batetik, baserriaren erospenak gero ta garestiago doaz, bestetik emaitzaren prezioa gutiz goratzen da eta diruaren eros-ahalmena kontsideratuz, prezio horiek behetik doaz. Bere bizia xuhurki egiteko nekazariak behar du lan gehiago egin, emaitza gehiago atera baserritik.

Prezio horien behetitzea (franko konstantez) %0,5 inguruan neur liteke urtero 1959tik 1977ra, eta iduriz azken bizpahiru urte hauetan gehiago oraino.

3. — Produkzio bakoitzaren irabazien konparaketa

Zein ote dira irabazi gehiena ematen duten produkzioak? galderari arrapostu bat emateko gestioa egiten duten baserri begiratuko diegu. Ikus dezagun produkzio bakoitzak hektareako zer irabazi uzten duen. Baina irabazi honek ez du aitzinean aipatu dugunaren ikur eta zentzu bera. Azken hau ateratzen dugu emaitzen balioei emaitza bakoitzaren gastu bereziak (onkailu, hazi, tratamendu lan berezi, seguru, bazka,...) atereaz.

Iparraldeko zelai eta mendixkako baserri hoberenen zifrak dira hauek.

Frankoak/Ha.	1974	1975	1976	1977
Produkzioa				
Ardi-esnea	3.727	3.665	4.176	4.193
Behi-esnea	3.034	2.862	3.489	3.867
Ardi-haragia	2.325	2.685	—	2.744
Behi-haragia	2.107	2.540	3.052	2.607
Artoa	2.080	1.843	2.963	2.367

Ardi-esnea eta behi-esnea dira, beraz, hektareako irabazi gehiena uzten dutenak. Ez da harritzekoa produkzio horiei buruz

ari badira Iparraldeko nekazariak. Alabaina, produkzio horiek dute ere lan gehienik eskatzen eta ororen buru ez da errana -lan-ordua hobekiago ordaintzen dutenik. Hain segur ere ez. Baina, gaur egun irabazi zerbait ateratzeko lan askorekin bada ere, baserri txikiek produkzio horiek behar lituzkete jokatu.

¹ Iturria: D. Davant.

² Iturria: 1970eko «recensement général» delakoa.

³ Iturria: D. Davant.

A. E.

LA AGRICULTURA Y LA GANADERIA EN EUSKADI NORTE L'AGRICULTURE ET L'ELEVAGE AU PAYS BASQUE NORD

I.— LA ESTRUCTURA AGRICOLA: En 1970 había al rededor de 9.000 explotaciones agrícolas, con una media de 13 hectáreas. Pero 1.100 explotadores tenían en el exterior su actividad principal, por lo que había que contar solamente 7.500-8.000 explotaciones de pleno ejercicio. Desde entonces, este número no ha cesado de decrecer. Primeramente, porque la superficie de estas explotaciones es pequeña: 80% de ellas tienen menos de 20 Ha. Por otra parte, a causa del aumento de los precios de las tierras y de las inversiones materiales, muchos jóvenes renuncian a la aventura financiera.

II.— LA ACTIVIDAD AGRICOLA: La edad elevada de los explotadores agrícolas constituye un problema grave, puesto que el 8,6% de ellos solamente tienen menos de 35 años, y el 17,3% tienen más de 65 años. Paralelamente, el número de activos disminuye cada año: ha pasado de 13.500 a 10.200 entre 1970 y 1977. Para parar la hemorragia, habría que obtener que la cifra de instalaciones de jóvenes se mantenga en la tasa actual de 120-150 por año.

III.— LA PRODUCCION AGRICOLA: el 80% de la producción se abastece de la ganadería y normalmente esta tendencia se desarrollará, porque el clima, el suelo y las tradiciones la favorecen. Desde el punto de vista de la carne, se ha hecho un esfuerzo interesante para la raza «blonde d'Aquitaine». La producción lechera crece igualmente un 15% al año. También el rebaño ovino es muy importante: 267.000 ovejas. El resto de la producción animal (porcina) o vegetal (trigo, maíz, cebada, viña, tabaco) es menos importante.

IV.— LA RENTA AGRICOLA: Se trata evidentemente de rentas desiguales. Estudiando la contabilidad de las explotaciones más evolucionadas, las que llevan el control de su gestión, se constata que esta renta es débil y parece que debe bajar, particularmente en zona de montaña: pasa a veces de 19.858 F a 14.836 F. por persona activa entre 1976 y 1977. Según Do-

minique *Davant la renta agrícola en el País Vasco Norte ha sido de 9.700 F. en 1969 y 20.500 F. en 1976, en vez de los 15.000 F. y 34.000 F. por persona activa para la media francesa.*

I. — LA STRUCTURE AGRICOLE: En 1970 il y avait environ 9.000 exploitations agricoles, de 13 hectares en moyenne. Mais 1.100 exploitants ayant à l'extérieur leur activité principale, il fallait compter seulement 7.500-8.000 exploitations de plein exercice. Depuis lors, ce nombre n'a cessé de décroître. C'est que d'abord, la surface de ces exploitations est faible: 80% d'entre elles ont moins de 20 Ha. D'autre part à cause de l'augmentation du prix des terres et des investissements matériels, beaucoup de jeunes renoncent à l'aventure financière.

II. — L'ACTIVITE AGRICOLE: L'âge élevé des exploitants agricoles constitue un problème grave puisque 8,6% d'entre eux seulement ont moins de 35 ans mais 17,3% ont plus de 65 ans. Parallèlement, le nombre des actifs diminue chaque année: il est passé de 13.500 à 10.200 entre 1970 et 1977. Pour arrêter l'hémorragie, il faudrait obtenir que le chiffre d'installations de jeunes se maintienne au taux actuel de 120-150 par an.

III. — LA PRODUCTION AGRICOLE: 80% de la production est fournie par l'élevage et normalement cette tendance se développera, car le climat, le sol et les traditions la favorisent. Du point de vue viande, un effort intéressant a été fait pour la race «blonde d'Aquitaine». La production laitière s'accroît également de 15% par an. De même le troupeau ovin est très important: 267.000 brebis. Le reste de la production animale, (porcins) ou végétale (blé, maïs, orge, vigne, tabac) est moins important.

IV. — LE REVENU AGRICOLE: Il s'agit évidemment de revenus inégaux. En étudiant cependant la comptabilité des exploitations les plus évoluées, celles qui font le contrôle de leur gestion, on constate que ce revenu est faible et semble devoir baisser; particulièrement en zone de montagne: Il passe parfois de 19.858 F. à 14.836 F. par personne active entre 1976 et 1977. Selon Dominique Davant le revenu agricole en Pays Basque a été de 9.700 F. en 1969 et 20.500 F. en 1976, au lieu de 15.000 F. et 34.400 F. par personne active pour la moyenne française.